

LAN ESKUBIDEAK

Seattle, gutxieneko soldata orduko 15 dolarrera igo duen AEBetako lehen hiria

Ezberdintasunaren aurkako neurri ausart bezain esanguratsua hartu berri du Seattle AEBetako ipar-mendebaldeko hiriko Udalak. Gutxieneko soldata orduko 15 dolarrera igo du; herrialde osoko datuak kontuan hartuta, bikoiztu egin ditu gutxien kobratzen dutenen soldata (7,25 dolarrekoa da gutxieneko soldata federala).

Ekainaren 3an sinatu zuten erabakia, neurri hori denbora askoan eskatzen aritu diren ekintzaile batzuen esku hartzearekin. Alderdi Demokratakoa da Ed Murray alkatea. Berak deitu zien enpresen eta sindikatuen ordezkariari, gaiari buruzko batzorde bat osa zezaten. Zenbait hilabeteko lanaren fruitua da gutxieneko soldata berria.

Igoera onartu aurretik ere, Washington estatuak (bertan dago Seattle hiria) AEBetako gutxieneko soldatarik handiena

 **EKONOMIA** / joseangel.oria@gaur8.info

Gutxieneko soldata igotzea tresna eraginkorra da AEBetan gero eta jasanezinagoa den ezberdintasunari aurre egiten hasteko. Horren jakitun, Seattleko Udalak gutxieneko soldata 15 dolarrera igotzea erabaki du. Janari lasterreko jatetxeetako langileek beste herritar askoren babesa lortu dute beren mobilizazioetan.

zeukan, orduko 9,32 dolarrekoa. Hiriko langileen %24k 15 dolar baino gutxiago kobratzen dituzte orduko. Pobreziaren maila federaletik behera bizi da hiriko populazioaren %13.

Edonola ere, neurri berria pixkanaka aplikatuko dute. 500 langiletik gora dituzten konpainiek 2017rako ordaindu beharko dute soldata berria, langileei mediku-segurantzarik ematen

ez badiete; eta 2018rako, gaixotasun-asegurua ematen dutenak. Negozio txikiek denbora gehiago izango dute, 2021era arte, igoera aplikatzeko. Gainera, onartutako legearen arabera, lehen urteetan propinak ere soldata moduan hartuko dituzte.

Ez da harritzekoa gutxieneko soldata 15 dolarrera igo duen AEBetako lehen hiria Seattle izatea. Bertan daude Microsoft,

Boeing eta Amazon bezalako konpainia handien egoitza nagusiak. Hiriak eta bere metropoli-barrutiak AEBetako leku gehienek baino langabezia tasa txikiagoa dute, eta teknologia-ren sektorean soldata onak ordaintzen dira, bai behintzat beste sektoreekin alderatuta. Alderdi Demokratak irabazten ditu hauteskundeak eta sindikatuek badute eraginik.

ENPRESARIEN KEZKAK

Hala ere, badago Seattle hirian bertan gutxieneko soldata horrenbeste igotzearen aurka da goenik. Tom Douglas ostalaritza enpresariak adierazi du hiriak azken urteotan izan duen hazkunde ekonomikoak eragin due la herritar askok ilusio faltsuak egitea, horrenbesteko soldatak ordaintzea ez baita betiko izango: «Amazonen burbuilan bizi gara, baina egoera hau ez da betiko izango. Sekulako inflazioa eragingo du».

McDonald's kateko langileek Illinois estatuko Oak Brook herrian egindako mobilizazio bat. Janari lasterreko kate ezagunak bertan du egoitza nagusia. GAUR8

